EUSKAL KOMIKIA AZKENEKO HAMARKADAN EL CÓMIC VASCO DE LA ÚLTIMA DÉCADA





Donostiako Udal Liburutegien Sarea Red de Bibliotecas Municipales de San Sebastián



Egilea E.P.E DONOSTIA KULTURA E.E.P Liburutegi zerbitzua - Servicio bibliotecario

Edita Konstituzio plaza, 1

20003 Donostia-San Sebastián

Azeleko irudia Dani Fano Ilustración de la cubierta

Diseinua eta maketazioa Itziar Olaberria Diseño y maquetación

Hitzaurrea Juan Manuel Díaz de Guereñu Prólogo

> Ale kopurua 7.000 ale - ejemplares Tirada

> > ISBN 978-84-89668-76-8

L.G. SS-1240-2009 D.L.

Inprimatzailea Leitzaran Grafikak, S.L.
Imprime Martin Ugalde Kultur Parkea

Andoain (Gipuzkoa)



Presentación	05
XXI. mendeko euskal komikia Cómic vasco del siglo XXI Juan Manuel Díaz de Guereñu	09
Egileak eta lanak (A/Z) Autores y obras	13
Izenburuen aurkibidea (A/Z) Índice de títulos	73
Donostiako komiki-jardunaldiak (2004-2009) Jornadas del cómic de San Sebastián	75



Donostia Kulturak Azken hamarraldiko euskal komikiari buruz-ko Irakurketa Gida (2000-2009) argitaratu du oraingo honetan, kultura-zirkuitu tradizionalek bazterrekotzat jo izan duten genero bati zabalkundea emateko asmoz. Haatik, genero horren eragina gero eta handiagoa da gazteen eta ez hain gazteen artean, eta gero eta ugariagoak dira argitaletxeak eta banaketa-bideak. Orain, urteetan eta urteetan haurrentzako denbora-pasa huts gisa hartua izan ondoren, komikia zineari, musikari, adierazpide inprimatu konbentzionalei eta Interneti gehitu zaie, aisialdi oso eta beterako beste era bat den aldetik.

Komikiaren ilustrazioak —berdin dio komiki, manga, eleberri grafiko, tebeo nahiz istorio deitzen badiogu— *fan* porrokatu batzuen esparrutxoa izateari utzi dio, eta era guztietako estiloak beretu ditu bere narratiba bisualean.

Liburutegien Sareak, hiritarrentzako zerbitzuak hobetzeko asmoz betiere, ahalegin handia egin du komikia ere gure bildumetan sartzeko. Hala, Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusian, *komikiteka* txiki bat dugu. Ekimen horren bidez beste eskaintza bat egin nahi zaie hiritarrei, oro har, eta gazteei bereziki, bestelako irakurgaiez goza dezaten.

Udal honetako Kultura eta Gazteria Sailaren arduradun gisa, kulturaren eta gazteen arteko harremanak erraztu nahi ditut. Erronka zaila dela jakinik, hala ere asmo horri eutsi nahi diogu Donostia Kulturatik.

Donostia, 2009ko iraila

Denis Itxaso González Kultura eta Gazteriako zinegotzi delegatua Donostia Kultura publica en esta ocasión una *Guía de Lectura* sobre el cómic vasco de la última década (2000-2009) como medio de difusión de un género considerado marginal en los circuitos culturales tradicionales. Sin embargo, su impacto está siendo cada vez mayor entre los jóvenes, y no tan jóvenes, hasta el punto de que han empezado a proliferar las editoriales y los canales de distribución. Ahora, después de décadas de ser considerado un entretenimiento puramente infantil, el cómic se ha agregado al cine, la música, los medios impresos convencionales e Internet como una forma más de auténtico entretenimiento.

La ilustración del cómic —lo llamemos cómic, manga, novela gráfica, tebeo o historieta— ha dejado de ser el reducto de *fans* obsesivos para englobar todo tipo de estilos en su narrativa visual.

La Red de Bibliotecas, en su línea de mejora de los servicios para la ciudadanía, ha realizado un esfuerzo importante por incorporar el cómic a nuestras colecciones. Así, en la Biblioteca Central de Alderdi Eder contamos con una pequeña *comicteca*. Con esta iniciativa se pretende ofrecer una nueva oferta al público en general y a los jóvenes en particular que podrán disfrutar con unas lecturas diferentes.

Como responsable del Área de Cultura y Juventud de este ayuntamiento es mi intención favorecer la relación entre la cultura y los jóvenes. Sabiendo que se trata de un reto difícil, desde Donostia Kultura estamos empeñados en alcanzarlo.

San-Sebastián, septiembre de 2009

Denis Itxaso González Concejal Delegado de Cultura y Juventud



da Donostiako Udal Liburutegien Sarearen bibliografia-gida berria. Aurten, merezi duen bezalako ezagutza egin nahi diogu adierazpide bakar eta original bati: komikiari. Komikia beti izan da gure udal liburutegietako funtsetan, orain artean haurrentzako sailetan baizik egon ez bada ere.

Donostiako Udal Liburutegi Nagusiak **10** urte bete ditu Alderdi Ederreko egoitzan, eta, hori ospatzeko, bi gertaerok batu nahi izan ditugu: gida argitaratzea, batetik, eta eraberritzea eta *komikiteka* izeneko gunetxo bat sortzea. Altzariak berritu ditugu —apalak, erakustokiak—, eta Dani Fano ilustratzailearen horma-irudi batez apaindu dugu gunea, leku atsegin eta berezitua izan dadin. Dani Fanok berak egin du gidaren azala ere.

Bilduma handitu eta sailkapena berrantolatu da, jatorriaren arabera berrantolatu ere: komiki europarra, amerikarra eta japoniarra edo manga. Sail horietako bakoitzari kolore bat dagokio. Atala osatzeko, zinera eraman diren komikien DVDen bilduma bat, argitalpenak, komikiari buruzko azterketak eta aldizkako zenbait argitalpen ditugu.

Gure ibilbidearen lehen urtea da hau. Hemendik aurrera, Liburutegi Zerbitzuan berrikuntza gehiago izango dira, eta urtero gida bat egitea da asmoa, komiki mota guztiak jasoko dituena.

remiri du. Izan ere, komiki-gida asko dira, baina euskal barrutiari zegokion argitalpen bat falta zen. Barruti hori, era zabalean hartuta, bai hizkuntzaren bai gaien aldetik. Euskal komikiaren gaiari ekiterakoan, generoaren hasiera-hasieraino iristea zen asmoa, baina argitalpenak hainbeste direnez, ideia hori baztertu eta azken 10 urteotako ekoizpenera mugatu gara, hau da, XXI. mendearen lehen hamarraldira.

Ehun eta hogeita hamar lan baino gehiago eta **berrogeita hiru egile**tik gora bildu dira gida honetan, baina beste asko ez dira sartu, orain arte albumik argitaratu ez dutelako, nahiz eta egunero jardun euskal umore grafikoaren alorrean: Josemari Alemán, Marko Armpach, Iñaki Cerrajería, DaniMaiz, Juan Luis

es la nueva guía bibliográfica de la Red de Bibliotecas Municipales de San Sebastián. Este año queremos reconocer como se merece un medio de expresión único y original: el cómic. El cómic siempre ha formado parte de los fondos de nuestras bibliotecas municipales, si bien hasta ahora en las secciones infantiles.

La Biblioteca Municipal Central de San Sebastián cumple **10** años en su sede de Alderdi Eder y para conmemorarlo hemos querido unir los dos hitos: la publicación de la guía y la remodelación y creación de un pequeño espacio llamado *comicteca*. Hemos renovado el mobiliario, estanterías nuevas, expositores y decorado el espacio con un mural del ilustrador Dani Fano, quien también ha realizado la cubierta de la guía, con el fin de conseguir un espacio agradable y diferenciado.

Se ha incrementado la colección y se ha procedido a reorganizar la clasificación en función de la procedencia geográfica: cómic europeo, americano y cómic japonés o manga. Cada clasificación se corresponde con un color. La sección se completa con una colección de DVD de cómics llevados al cine, publicaciones, estudios sobre el cómic y algunas publicaciones seriadas.

Es el primer año de nuestra andadura, a partir de ahora el Servicio Bibliotecario continuará incorporando novedades, al tiempo que pretende realizar una guía anual que recoja los diferentes tipos de cómics.

La selección de cómics que encontramos en trata de cubrir un hueco, ya que si bien hay muchas guías de cómics, faltaba una publicación referida al ámbito vasco, entendido éste en un sentido amplio, también desde un punto de vista lingüístico y temático. En una primera aproximación al tema del cómic vasco se pretendía abarcar el género desde su inicio, pero ante la enorme cantidad de publicaciones tuvimos que desistir de la idea y optar por limitarlo a la producción de los 10 últimos años, la primera década de este siglo XXI.



Díaz de Corcuera, Jabier Etaio, Gon, Kini, Larry, Adolfo Luzuriaga, Iñaki Martiarena, Xabi Mercero, Oroz, Manu Ortega, Javi Quintana, Sanvi, Basilio Tamayo, Asisko Urmeneta, Mikel Valverde, Jesús Zulet...; beste batzuk gure gidak hartzen duen aldia baino lehen ekarpen handi eta garrantzitsuak egin zituztelako: Juan Carlos Eguillor, Andoni Gaztelua, Harriet, Javier Hernández Landazábal, José Ibarrola, José Manuel Mata Argüelles, Antton Olariaga, Luis del Olmo, Pedro Osés, Javier Roa, Jon Zabaleta...; eta gida hau egiteko unean oraindik lehen albuma argitaratu ez arren, aurki argitaratuko dutenak: Dani Fano, Iñaket, Alex Orbe, Arantza Sestayo... Horiei denei, gure aitorpena.

Gida egileka eta alfabeto-ordenaren arabera egina dago. Biografia laburra eta lan osoa jasotzen ditu. Aukeratutako tituluekin batera, portada eta argumentuaren sinopsi labur bat doaz. Egile donostiarrak nabarmendu nahi izan ditugu, kolore berdez azalduz. Argitalpenak Juan Manuel Díaz de Guereñuren sarrera du osagarri, gai honetan espezialista baita. Esan bezala, azalean Dani Fanok *komikiteka* apaintzeko egindako ilustrazioa ageri da. Tituluen aurkibide batek ere laguntzen dio erabiltzaileari lanak aurkitzen.

Guztiari buru emateko, Komiki Jardunaldiei buruzko laburpen bat dator. Donostia Kulturako Zine Unitateak egiten duen Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren astearen baitan izaten dira jardunaldiok *El Diario Vasco*ren laguntzarekin. 2004tik hasita, erakusketak egiten dira Ernest Lluch eta Okendo kultur etxeetan, eta Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusian.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet gida hau egiterakoan aholkulari izan ditugun guztiei; eta bereziki, Juan Manuel Díaz de Guereñu, Dani Fano eta Donostia Kulturako liburutegietako lan talde osoari.

Donostia, 2009ko iraila

Arantza Urkia Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria Son más de ciento treinta obras y más de cuarenta autores los que se reseñan en esta quía, pero son muchos también los que no figuran en ella ya que hasta ahora no han publicado álbumes, aunque trabajan diariamente en el mundo del humor gráfico vasco: Josemari Alemán, Marko Armpach, Iñaki Cerrajería, DaniMaiz, Juan Luis Díaz de Corcuera, Jabier Etaio, Gon, Kini, Larry, Adolfo Luzuriaga, Iñaki Martiarena, Xabi Mercero, Oroz, Manu Ortega, Javi Quintana, Sanvi, Basilio Tamayo, Asisko Urmeneta, Mikel Valverde, Jesús Zulet...; los que realizaron grandes e importantes aportaciones con anterioridad a las fechas que abarca nuestra guía: Juan Carlos Equillor, Andoni Gaztelua, Harriet, Javier Hernández Landazábal, José Ibarrola, José Manuel Mata Argüelles, Antton Olariaga, Luis del Olmo, Pedro Osés, Javier Roa, Jon Zabaleta...; y los que en el momento de elaborar esta quía aún no han publicado un álbum, pero lo harán en breve: Dani Fano, Iñaket, Alex Orbe, Arantza Sestayo... A todos ellos nuestro reconocimiento.

La guía sigue una ordenación alfabética de autor, con una pequeña biografía de cada uno y su obra completa. Los títulos seleccionados se acompañan de la portada y breve sinopsis del argumento. Se ha querido resaltar a los autores locales donostiarras diferenciándolos con color verde. La publicación se completa con una introducción de Juan Manuel Díaz de Guereñu, especialista en esta materia. Tal y como ya se ha indicado, la cubierta reproduce la ilustración realizada por Dani Fano, para decorar la comicteca. Un índice de títulos ayuda al usuario a localizar las obras.

Como colofón se incluye un resumen sobre las Jornadas del Cómic que en el marco de la semana de Cine Fantástico y de Terror liderada por la Unidad de Cine de Donostia Kultura, viene realizando desde 2004, en colaboración con *El Diario Vasco*, exposiciones en los centros culturales Ernest Lluch y Okendo y en la Biblioteca Central Alderdi Eder.

Quiero terminar agradeciendo a todos los que nos han asesorado a la hora de realizar la guía; en especial a Juan Manuel Díaz de Guereñu, Dani Fano y a todo el equipo bibliotecario de Donostia Kultura.

San Sebastián, septiembre de 2009

Arantza Urkia Directora del Servicio Bibliotecario

XXI. MENPEKO EUSKAL KOMIKIA CÓMIC VASCO PEL SIGLO XXI



Juan Manuel Díaz de Guereñu

Dickens-en eleberri bateko paradoxa badirudi ere, garairik onenak eta txarrenak ditugu hauek euskal komikian. Hasi berri dugun mende honetan, gure komikiaren on-gaitzak oinarrizko errealitatearen ondorio zuzen dira, batzuk zein besteak. Komikiaren industriak ez du behar adinako tamaina bertako produkzioari eusteko eta, horrenbestez, arlo horretako egileek bizibidea ateratzeko aukera izan dezaten. Negozio-tamaina handieneko espainiar argitaletxeek istorioak —batez ere superheroien edo manga erako komikiak— atzerrian erosita lortzen dute, hain zuzen, etekin hori, istorio horiek errazago merkaturatzen baitira. Argitaletxe txikiek, berriz, milaka gutxi batzuetako tiradak argitaratzen dituzte eta, oro har, egileek ez dute nahikoa irabazi bereganatzen.

Ondorioz, istorioen egileek, salbuespenak salbuespen, beste lanbide batzuetan jardunez atera behar dute bizibidea —zori hoberenekoek ilustrazioak egiten dituzte edo publizitatean diseinatzen dute, edo animazioan, hurbil samarreko lanbideak izaki— eta asti pixka bat dutenean sortzen dituzte lanak, bokazio eta seta hutsez. Baina, ez baita kalterik onik ez dakarrenik, haien zorigaitza irakurleen zorion bihurtzen da. Biñetak marraztuz soldata duinik irabazi ezin dutenez, sortzaileak ez daude merkatu-ekoizpenaren jarraibide eta mugetara lotuta, eta gogoak ematen diena edo ateratzen zaiena marrazten dute, ez gehien saltzen dena, eta hori, gehienetan, askoz interesgarriagoa gertatu ohi da irakurlearentzat, gehien saltzen denaren errezeta jakinetara makurtu ohi dena baino.

Hala, sortzaileen eskasiak komiki-irakurleen asebetea dakar, lan on eta interesgarriez bazkatzeko aukera baitute. Paradoxa hori, aspaldikoa artearen edo literaturaren arloan, nagusi da gaur egun komikiaren ia merkatu guztietan ere. Komunikabide horren historian, oso gutxitan eskaini izan dira hain irakurgai erakargarriak adin eta irizpide guztietako irakurleentzat, baita exijenteenak eta kultur eta arte-interes zabalenak izanik ere.

Jakina, komikiaren merkatuaren meharra are meharragoa da euskaraz sorturikoari dagokionez. Errealitate soziolinguistikoak ez du gehiago ematen. Ehun mila gutxi batzuetako hiztunen koAunque suene a paradoja como de novela de Dickens, vivimos el mejor y el peor de los tiempos para el cómic vasco. Fortuna y desgracia de nuestro cómic en este siglo recién iniciado son ambas resultado directo de la misma realidad de base: la industria del cómic no tiene aquí las dimensiones necesarias para sostener una producción propia que permita a los autores ganarse la vida como profesionales del medio. Las editoriales españolas de mayor cifra de negocios la consiguen importando historietas foráneas —básicamente cómics de superhéroes o manga—, de comercialidad más segura, y las editoriales pequeñas publican con tiradas de unos pocos miles de ejemplares, que por lo general no proporcionan a los autores ingresos suficientes.

En consecuencia, los autores de historietas, con muy escasas excepciones, han de ganarse el jornal ejerciendo otras profesiones —los más afortunados ilustran o diseñan en publicidad, en animación, oficios más o menos próximos— y han de crear sus obras en ratos libres, por pura y tozuda vocación. Pero, como no hay mal que por bien no venga, esta su desdicha viene a ser fortuna para los lectores. Dado que no pueden ganar un sueldo decente de dibujar viñetas, los creadores no están sujetos a las pautas y restricciones de la producción comercial, dibujan lo que les sale o les apetece, no lo que vende, y eso suele ser de ordinario mucho más interesante para el lector que lo ajustado a las recetas sabidas de lo vendible.

Así, la penuria de los creadores da lugar al festín de buenas e interesantes obras que disfrutan los lectores de cómics. Esta paradoja, ya añeja en los terrenos del arte o la literatura, rige hoy casi todos los mercados del cómic. Pocos periodos de la historia del medio han ofrecido tanta lectura apasionante para públicos de cualquier edad y criterio, incluido el más exigente y de intereses culturales y artísticos más amplios.

Naturalmente, la pequeñez del mercado del cómic se extrema en el caso del creado en euskera. La realidad sociolingüística no da para más: una comunidad de unos pocos cientos de miles de hablantes constituye un mercado muy reducido como para que un producto impreso tan específico como el cómic sea viable



munitatea oso merkatu txikia da, komikia, produktu inprimatu hain zehatza, bideragarria izan dadin ekonomiaren aldetik. Horregatik, euskal komikiaz hitz egitea euskal herritarrek sortutako komikiaz hitz egitea da egun; alegia, euskararen merkatuarentzat zein merkatu espainiar zabalagoarentzat idazten eta marrazten duten euskal herritarrek edo, noiz edo behin, beste hizkuntza batzuetara ere iristen diren euskal herritarrek sortutako komikiaz.

Ikusten denez, komikiaren nondik norakoa sumatzeko, ezinbestekoa da ohartzea merkatuak nola funtzionatzen duen. Izan ere, artistek beren lan-mahaiaren bakardadean sortzen badute ere, komikia produktu inprimatu gisa zabaltzen da. Alegia, herrikultura garaikidearen gehiena —musikak, zineak, liburuek osatzen dutena— bezala, modu industrialean ekoizten da eta kiosko, liburu-denda eta saltoki handietan saldutako aleetan iristen da gure eskuetara, edota liburutegien edo kultur etxeen kultur eskaintzaren osagai gisa.

Azken urteotako euskal komikia, hein handi batean, argitaletxe jakin batzuen ekimenari lotuta sortu da, irtenbide egokia eskaini baitiete egileen lanei. Horregatik, argitaletxeon inguruan bildu dira egileok, modu esklusiboan izan ez bada ere. Dena den, deigarri gertatzen da sortu diren zenbait egile talderen tokikotasun nabarmena. Nonbait, hurbiltasunak eta adiskidantza-harremanek zerikusi handia dute argitaletxeen egitasmoen eraginkortasun eta iraupenarekin.

Espainiako merkatuko argitaletxe independente sendo eta eragileenetako batek Bilbon du egoitza. Hantxe sortu zen Astiberri, 2001ean, eta lau urtez, 2005era arte, informazio eta kritikarako aldizkaria argitaratu zuen, *Trama*. Nazioarteko komiki kalitatezkoen sorta ondo hautatua argitaratu du, eta bertako komikirik onenaren zati nabarmen bat. Haren izatearen ezaugarri dira egile-komikiaren aldeko apustua, irakurle heldu eta heziari zuzendua, eta liburu itxurako formatuetan argitaratzea. Nazioarteko panoramaren zigilu alternatibo ospetsuenen ildotik, Astiberrik zuri-beltzaren soiltasun halako bat eta argitalpen-xehetasun ondo zainduak elkartu ohi ditu, eta egileek berek erabakitako luzera eta estiloko lanak merkaturatzen.

Egile horien artean, badira Euskadiko eta Nafarroako batzuk Bilboko argitaletxean hasi direnak, hala nola Raquel Alzate, Javier de Isusi, Jali, Leandro Alzate edo Infame & Co; eta badira beste batzuk zigilu ospetsu horretara jo dutenak beste argitalpen batzuetan lan sendoa egin eta gero, hala nola Mauro Entrialgo,

económicamente en él. Por eso, hablar de cómic vasco hoy equivale a hablar del cómic creado por vascos, que escriben y dibujan para el mercado del euskera, para el más amplio del español o que alcanzan ocasionalmente a los de otros idiomas.

Ya se ve que, para intuir por dónde camina el cómic y hacia dónde, es preciso observar cómo funciona su mercado. Y es que, aunque los artistas lo crean en la soledad de su mesa de trabajo, el cómic se difunde como producto impreso. Es decir que, lo mismo que lo más sustancial de la cultura popular contemporánea—la que conforman música, cine, libros—, llega a nuestras manos en ejemplares reproducidos de modo industrial y puestos a la venta en kioscos, librerías y grandes superficies, o como parte de la oferta cultural de bibliotecas o casas de cultura.

El cómic vasco de estos últimos años ha surgido en buena medida ligado a determinadas opciones editoriales, que han proporcionado a los autores salida aceptable para sus obras. Por eso se han agrupado en torno a ellas, aunque no de forma exclusiva. Eso sí, resulta llamativo el marcado carácter local de algunas agrupaciones de autores resultantes. Por lo visto, la proximidad y las relaciones de amistad tienen mucho que ver con la eficacia y la duración de los proyectos editoriales.

Una de las editoriales independientes más sólidas e influyentes del mercado español tiene su sede en Bilbao. Allá nació en 2001 Astiberri, que publicó durante cuatro años, hasta 2005, su propia revista de información y crítica, *Trama*, y ha editado una sólida selección de cómic internacional de calidad y parte significativa de lo mejor del cómic de aquí. Constituyen sus señas de identidad la apuesta por el cómic de autor, dirigido a un público adulto y formado, y por formatos de edición próximos al libro. En línea con los sellos alternativos más prestigiosos del panorama internacional, Astiberri conjuga habitualmente la relativa austeridad del blanco y negro con el cuidado exquisito de los detalles editoriales, y ha puesto en el mercado obras de la extensión y el estilo que han determinado sus respectivos autores.

Entre ellos se cuentan autores vascos y navarros que han iniciado su andadura en la editorial bilbaína o poco menos, como Raquel Alzate, Javier de Isusi, Jali, Leandro Alzate o Infame & Co, y otros que han acudido a este sello de prestigio después de haber asentado su obra en otras editoriales, como Mauro Entrialgo, Bernardo Vergara o Santiago Valenzuela. Son firmas de acusada personalidad, por lo que apenas se puede hablar de una línea editorial de Astiberri que no sea la mencionada de publicar obras de calidad.

Bernardo Vergara edo Santiago Valenzuela. Nortasun nabarmeneko sinadurak dira, eta, beraz, ez dago esaterik Astiberrik ildo editorial bakar bat duenik, ez bada aipatu duguna: kalitatezko lanak argitara ematea.

Astiberriren argitalpenek asko lagundu dute hamarraldi honetan komikiaren irudi berria definitzen: kultur produktua, maiz "eleberri grafiko" etiketari atxikia. Bide horretan, beste zigilu ospetsu batzuekin batera doa. Horien guztien katalogoetan, irakurleak aurki dezake, bai, aipaturiko artista euskaldunen eta beste batzuen lana. Horren froga da, hain zuzen, orrialdeon ondotik datozen egile eta lanen zerrenda.

Gasteizen du egoitza Euskal Herriko aldizkaririk zaharrenak, *TMEO* temati izugarriak. Iruñean sortu zen, 1987an, zenbait *fanzine*k bat egitearen ondorioz, baina Gasteizen lortu du bi hilabetez behin kaleratzea, bai eta aldizkari profesionalaren itxura (zuri-beltzeko eta koloretako orrialdeak dituena) eta 105 zenbaki erregularreko kopuru nabarmenera iritsi izana ere. Horiez gainera, hiru dozenatik gora bilduma-album.

Alabaina, bere adina eta heldutasun-itxurak eta guzti, *TMEO*k ez du ahaztu hasierako espiritua, *fanzine* protestariaren izaera: umore labain-lizunean, satira mugagabean eta errespetagarri-itxurako edozeri erakutsitako errespetu faltan atsegintzen da, eta ohikoaz besteko zirkuitua du zabalkunderako, hots, haren orrialdeetan publizitatea sartzen duten taberna eta dendak. Gaurkotasunarekin ari ohi diren aldizkari satirikoen bertsio erradikal bat litzateke. Hain zuzen, bertan diharduten askok *El Jueves*en ere marrazten dute, hau da, arrakasta iraunkorreneko espainiar aldizkari umorezkoan, bai eta beste egunkari eta aldizkari batzuetan ere.

TMEOn lankide finko direnen zerrendan sartzen dira Mauro Entrialgo, oso egile emankor eta irakurria —komikiaren profesional dela esan dezakeen bakanetako bat—, Alvarortega, Santi Orue, Simonides edo Mikel Valverde, besteak beste.

Donostian argitaratzen da *Xabiroi*, Ikastolen Federazioak sustatzen eta banatzen duen euskarazko komiki-aldizkaria. Badu aurrekari bat, *Habeko Mik*, duela hogei urtekoa, baina, hark ez bezala, *Xabiroi*k haurren eta gazteen artean bilatzen ditu irakurleak. Lankidetza laburrak eta istorio ondo artikulatuak eskaintzen dizkie, maiz idazleek sinatuak —Harkaitz Cano edo Iban Zalduak, besteak beste—, eta profesionalen sendotasunez marraztuak —Dani Fano aldizkariaren koordinatzaileak, Iñaki G. Holgadok, Juan Luis Landak, Julen Ribasek edo Lopek, esate baterako—. Aldizkaria iritsi da dagoeneko 16. zenbakira, hiru hilabetez behin

Las ediciones de Astiberri han contribuido decisivamente durante esta década a definir la nueva imagen del cómic como producto cultural, asociada a menudo a la etiqueta "novela gráfica". Acompaña en dicha tarea a otros sellos de prestigio, en cuyos catálogos el lector puede encontrar también obra de los mencionados artistas vascos o de otros, como prueba la relación de autores y obras que sique a estas páginas.

En Vitoria radica la revista más longeva del País Vasco, la temible *TMEO*. Aunque fundada en Pamplona en 1987, a partir de la confluencia de varios *fanzines*, *TMEO* ha logrado en la capital gasteiztarra su periodicidad fija de bimestral, su formato de revista profesional, que combina páginas en blanco y negro y en color, y la notable cifra de 105 números regulares, a los que acompañan tres docenas largas de álbumes recopilatorios.

Sin embargo, pese a su edad y sus hechuras de madurez, *TMEO* no ha abandonado su espíritu inicial de *fanzine* contestatario, que se refocila en el humor escabroso, en la sátira desaforada, en la falta de respeto permanente a cualquier representación de lo respetable, y se distribuye principalmente por un circuito paralelo al habitual, el de los bares y tiendas que insertan publicidad en sus páginas. Viene a ser una versión radical de las revistas satíricas de actualidad, por lo que buen número de sus colaboradores dibujan también para *El Jueves*, la revista de humor española de más largo éxito, así como para otros periódicos y revistas.

La nómina de los colaboradores fijos en *TMEO* incluye a Mauro Entrialgo, autor tan prolífico y leído que es uno de los pocos que pueden alardear de ser profesional del cómic en el país, Alvarortega, Santi Orúe, Simónides o Mikel Valverde, entre otros.

San Sebastián es el lugar de publicación de *Xabiroi*, revista de cómics en euskera que costea y distribuye la Confederación de lkastolas. Tiene un antecedente en *Habeko Mik* hace dos décadas pero, a diferencia de ésta, *Xabiroi* se dirige a un público infantil o juvenil, al que ofrece colaboraciones breves y un conjunto de historias bien articuladas, a menudo firmadas por escritores como Harkaitz Cano o Iban Zaldua, y dibujadas con solidez de profesionales por Dani Fano, coordinador de la revista, Iñaki G. Holgado, Juan Luis Landa, Julen Ribas o Lope, entre otros. También acompaña a la revista, que ya ha alcanzado su número 16 con periodicidad trimestral, una colección de álbumes bien editados, que ha producido dos títulos pero planea ofrecer más en breve.

Tres capitales y tres modelos de producción y edición de cómics. Cada uno de ellos muestra las dificultades y los inconvenientes





kaleratuta, eta, horrekin batera, album ondo zainduen bilduma bati ekin dio; orain arte bi titulu eman ditu, eta aurki gehiago kaleratzeko asmoa du.

Hiru hiriburu eta hiru eredu komikiak ekoizteko eta argitaratzeko. Bakoitzak komunikabidearen zailtasun eta eragozpen batzuk erakusten ditu, oso arlo zekena eta zaila baita, baina baita zein liluragarri den istorioak halako hizkuntza dela bide sortzea, hots, beste hizkuntza batzuek onartzen ez duten askatasuna duen hizkuntza. Baliteke hemengo komikiak, estuasunak estuasun, erakartzen, hunkitzen, atsegin ematen duen irakurgaia eskainiz jarraitzea. del medio, poco generoso y de éxito esquivo, pero también lo fascinante que resulta crear historias mediante un lenguaje que permite libertades que pocos toleran. Es probable que, aunque padeciendo estrecheces y apreturas, el cómic vasco nos siga proporcionando lectura que apasiona, conmueve y divierte.



Inda Abarrots Altolagirre-k *TMEO*, *Cáñamo* eta *Geu Gasteiz* aldizkarietan jardun du, Los Euskalorros, El Ché de barra edo El bar Perico pertsonaiei esker, besteak beste. Beste argitalpen batzuetan ere parte hartu du, hala nola *Cretino* fanzinean, eta komikiak egin ditu *Ailaket!!* aldizkarirako. Piñata eta Roger-ekin batera, *Tres sin raya* (TMEO, 1999) argitaratu zuen, eta bakarka, berriz, *Planeta fumeta* eta *Euskalorros*. Ilustrazioan ere ari da, bai eta kartelak, logotipoak, kamisetak... diseinatzen ere.

Inda Abarrots Altolagirre colabora en las revistas *TMEO*, *Cáñamo* y *Geu Gasteiz* gracias a personajes como Los Euskalorros, El Ché de barra o El bar Perico. Ha contribuido también esporádicamente a otras publicaciones, como el fanzine *Cretino* y ha realizado cómics para *Ailaket!!* Publicó en colaboración con Piñata y Roger *Tres sin raya* (TMEO, 1999) y en solitario *Planeta fumeta* y *Euskalorros*. Trabaja también en ilustración, y diseñando carteles, logotipos, camisetas...

PLANETA FUMETA

Abarrots. Barcelona: Cáñamo, 2004

Fumetak, landatzaileak, landare-lapurrak, politoxikomanoak, adin txikiko pastillazaleak, poliziak, jaizaleak... eta ezin konta ahala pertsonaia askotariko eta egoera bitxi, aldez edo moldez kanabisaren eta beste sustantzia ezlegal batzuen mundukoak, umorearen ildotik kontatzeko Abarrotsen bakarkako lehen album hau.

Fumetas, cultivadores, robaplantas, politoxicómanos, menores pastilleros, maderos, fiesteros... y un sinfín de personajes variopintos y situaciones pintorescas, relacionados de un modo u otro con el mundo del cannabis y de otras sustancias ilegales, conforman un perfecto caldo de cultivo para la narración en clave de humor de este primer álbum en solitario de Abarrots.


• EUSKALORROS EN EL MUNDIAL DE FÚTBOL: ÍLIANDO POLLOS! Abarrots. Gasteiz: Ezten Kultur Taldea, 2005


Euskalorroen, edo "aberchachoen" banda osatzen duten lau ijitoen misioa ez da Alemaniako Munduko Futbol Txapelketaren ordena bermatzea, hura saboteatzea baizik. Frantzia hegoaldean ezkutatzen den komando bateko kideei zin egin diete euren aldarrikapenak mundu osoan ezagutuko dituztela, eta nahi izanez gero, urrezko kopa Euskal Herrira ekarriko dutela. Hori lortzeko eta, bide batez, buruan dituzten zenbait proiektu aurrera ateratzeko, Euskalorroak gai dira arbitroak mehatxatzeko, poliziei erasotzeko, Mexikoko eta Txinako selekzioetan infiltratzeko..., beti dabiltza "polloak liachen".

La misión de los cuatro gitanos que forman los Euskalorros o "aberchachos" no es apoyar el Mundial de Fútbol de Alemania, sino sabotearlo. Han prometido a los miembros de un comando que se oculta en el sur de Francia que se conocerán sus reivindicaciones en todo el mundo y, que si hace falta, traerán la Copa a Euskal Herria. Para conseguirlo y, de paso, para llevar a cabo algunos de sus proyectos, los Euskalorros son capaces de amenazar a los árbitros, atacar a los policías, infiltrarse en las selecciones de México y China..., siempre "polloak liachen".











Zaragoza, 1952



Antonio Altarriba Fuskal Herriko Unibertsitateko katedratikoa da Gasteizen, eta komikien aztertzaile bakanetako bat. Oso ezaguna komikiaz egindako lanengatik eta hirurogei artikulu baino gehiago argitaratu dituelako talde-lanean, lan akademikoetan edo espezializatuetan. Besteak beste: Bustrófedon, Les cahiers de la bande dessinée, Caracola, Taka de tinta, Krazy comics, Urgences, El maquinista, Neuvième Art, Cuadernos hispanoamericanos eta El Correo de la Unesco. Horrez gainera, Altarriba eleberrigile ezaguna da —Euskadi Literatura Saria eman zioten 2003. urtean—, eta, Pilar Albajar-ekin batera, hainbat erakusketatan aurkeztu dituzten fotografia-asmakizunen egilea ere bai. Baina Altarriba gidoilari ere badelako ageri da gida honetan. Haren istorio laburrak Luis Royo, Strader. Rafael Estrada, Samuel Aznar, Javier Hernández Landazábal, Ricard Castells eta Patricia Albaja-ek marraztu dituzte, honako aldizkari hauetan, hain zuzen ere: Ilustración y Comix Internacional, 1984, Rambla, El Víbora, Bustrófedon, Lux Daemoniorum, Medios revueltos, Texture, Habe eta Heavy Metal. Album hauetan ere argitaratu izan dira: Luis Royo marrazkilariaren Women (Norma, 1992) eta Fantastic Art (Norma, 2004), zenbait hizkuntzatan; marrazkilari beraren Desfase (Ikusager, 1987) eta De vuelta, (Miguel Marcos, 1983); eta Javier Hernández Landazábalen Detective, (Ikusager, 1991).

Antonio Altarriba, catedrático de la Universidad del País Vasco en Vitoria-Gasteiz, y uno de los pocos estudiosos de la historieta, es muy conocido por sus trabajos sobre el cómic y sus más de sesenta artículos en obras colectivas y revistas de historietas, académicas o especializadas como Bustrófedon, Les cahiers de la bande dessinée, Caracola, Taka de tinta, Krazy comics, Urgences, El maquinista, Neuvième Art, Cuadernos hispanoamericanos y El Correo de la Unesco, entre otras. Altarriba es además novelista reconocido —obtuvo el Premio Euskadi de literatura en 2003— y, junto con Pilar Albajar, autor de invenciones fotográficas que han presentado en numerosas exposiciones. Pero Altarriba forma parte de esta quía sobre todo porque también es quionista, de historietas cortas que dibujaron Luis Royo, Strader, Rafael Estrada, Samuel Aznar, Javier Hernández Landazábal, Ricard Castells y Patricia Albajar en revistas como *llustración y Comix Internacional*, 1984, Rambla, El Víbora, Bustrófedon, Lux Daemoniorum, Medios revueltos, Texture, Habe y Heavy Metal, y de álbumes como Women (Norma, 1992) y Fantastic Art (Norma, 2004) de Luis Royo, editados en varias lenguas, y de Desfase (Ikusager, 1987), De vuelta, (Miguel Marcos, 1983) del mismo dibujante, y Detective, de Javier Hernández Landazabal (Ikusager, 1991).

• AMORES LOCOS

Guión, Antonio Altarriba; dibujo, Laura. Onil: Edicions De Ponent, 2005

Gizakiaren historiako hiru une erabakigarri, non primitibotasuna, sentsualitatea eta erotismoa baitira protagonista. Altarribak hiru fikzio proposatzen dizkigu lan honetan, hirurak ere testuinguru oso desberdinetan: Ehiztari baten eta haren neska lagunaren arteko maitasuna,

K.a. 13000. urte aldera; eskultore batek Afroditaren gurtzaren apezemearengana duen gaixo-grina, K.a. VI. mendean; eta bi emakumek bi mundu gerren arteko New York-en dituzten harreman barne-barnekoak.

Tres momentos decisivos de la historia del hombre donde lo primitivo, la sensualidad y el erotismo comparten protagonismo. Altarriba nos propone en esta obra tres ficciones situadas en contextos muy diferentes: el amor entre un cazador y su compañera hacia el año 13000 a.C., la pasión enfermiza de un escultor por la sacerdotisa del culto de Afrodita en el Corinto del siglo VI a.C., y la relación íntima que mantienen dos mujeres en el New York de entrequerras.

• EL BRILLO DEL GATO NEGRO

Antonio Altarriba; Laura. Onil: Edicions De Ponent, 2008

Lehen dinastiako Txina elezaharretakoan eta Berpizkundeko Italian kokatu dituzte Laurak eta Altarribak erotismo handiko bi kontakizunok. Luxua, sofistikazioa eta gorteko konspirazioak nahasten dira desiraren katuak emandako distira beti ilargitarrak eta atzaparkada beti urratzaileek zeharkatutako azpilan bihurrietan. Jadezko jauregiak, zetazko aintzirak, ispilu diruditen margolanak eta beste hainbat miragarri dira gertaleku mendeku pozoitsu, bilaketa ezinezko eta, jakina, amodio neurrigabeentzat.

La China legendaria de la primera dinastía y la Italia del Renacimiento son los escenarios en los que Laura y Altarriba sitúan estas dos historias de alto contenido erótico. Lujos, refinamientos y conspiraciones cortesanas se mezclan en unas intrigas atravesadas por el brillo, siempre lunar, y los zarpazos, siempre desgarradores, del gato del deseo. Palacios de jade, lagos de seda, cuadros que se confunden con espejos y otras muchas maravillas sirven de marco a venganzas envenenadas, búsquedas imposibles y, por supuesto, amores extremos.


• EL ARTE DE VOLAR

Antonio Altarriba; Kim; Onil: Edicions De Ponent, 2009

2001eko maiatzaren 4an, Antonio Altarribaren aitak bere buruaz beste egin zuen. Halaxe eman zion amaia porrotak eta frustrazioak markaturiko bizitzari. Joan den mendeko beste hainbat gizon eta emakumek bezala, mundu justuagoa eraikitzen saiatu zen, eta Historiak bizkarra erakutsi zion; ilusioaren hegoez hegaldatu nahi, eta behea jo zuen. Haren eskutik, mende hasierako Espainiaren gabeziak ageri zaizkigu, gerra zibila, atzerrialdia, kontzentrazio-eremuak, alemanen kontrako erresistentzia, merkatu beltza, desarrollismoa, demokraziaren etorrera...

El 4 de mayo de 2001 el padre de Antonio Altarriba se suicidó. De esa manera ponía fin a una vida marcada por el fracaso y la frustración. Al igual que otros muchos hombres y mujeres del pasado siglo intentó construir un mundo más justo y la Historia le dio la espalda, quiso volar con las alas de la ilusión y acabó estrellándose. De su mano recorremos las penurias de la España de principios de siglo, la guerra civil, el exilio, los campos de concentración, la resistencia contra los alemanes, el mercado negro, el desarrollismo, la llegada de la democracia...







ÁLVAREZ RABO

Monforte de Lemos (Lugo), 1960?





Álvarez Rabo (izen hori nahi du beretzat) Monforte de Lemos-en jaio zen, 1960 aldera, eta, oso txikia zelarik, Bilbora joan zen bizi izatera, gurasoekin. Berak dio El Corte Inglés-eko ehiza eta arrantza sailean lan egiten duela, saltzaile gisa. Argazkietan, are jendaurrean ere, buruan galtzerdia, buruestalkia edo kareta duela agertu ohi da. Besteak beste, El Víbora, TMEO, Cretino, Monográfico eta Ardi Beltza aldizkarietan jardun du. Álvarez Rabo gure marrazkilari polemikoenetako bat da. Haren lanen ezaugarri da itzulingururik gabea eta "politikoki okerra" izatea, bai erabili ohi duen hizkuntzaren aldetik, bai jorratzen dituen gaien aldetik (oso modu irekian jorratu ere). Bereziki deigarria da nola islatzen dituen sexu-jokabideak. Honako lan hauen egilea da: Historias raberas (TMEO, 1993), Consejos sexuales de Álvarez Rabo (TMEO, 1996; Topolin-ek italieraz argitaratua, 1998), A las mujeres no les gusta follar (TMEO, Vitoria, 1997; Ediçoes Polvo-k portugesez argitaratua, 2003; Doedytores-ek Argentinan argitaratua, 2004), No puedo dar más (La Cúpula, 1998), Anal-fabetos (TMEO, 1999; Ediçoes Polvo-k portugesez argitaratua, 2004).

Álvarez Rabo (se hace llamar así) nació en Monforte de Lemos hacia 1960, y se fue a vivir a Bilbao con sus padres siendo todavía muy pequeño. Dice que trabaja como dependiente en el departamento de caza y pesca de El Corte Inglés. En las fotografías, e incluso en público, suele aparecer con una media en la cabeza, un pasamontañas o una careta. Ha colaborado en las revistas *El Víbora, TMEO, Cretino, Monográfico y Ardi Beltza*, entre otras. Álvarez Rabo es uno de nuestros dibujantes más polémicos. Su obra se caracteriza por carecer de tapujos y ser "políticamente incorrecta", tanto por el lenguaje que emplea, como por los temas que trata abiertamente, siendo especialmente llamativa su forma de reflejar las conductas sexuales. Es autor de *Historias raberas* (TMEO, 1993), *Consejos sexuales de Álvarez Rabo* (TMEO, 1996; edición en italiano de Topolin, 1998), *A las mujeres no les gusta follar* (TMEO, 1997; edición portuguesa de Ediçoes Polvo, 2003; argentina, de Doedytores, 2004), *No puedo dar más* (La Cúpula, 1998), *Anal-fabetos* (TMEO, 1999; edición portuguesa de Ediçoes Polvo, 2004).

HASTA EL RABO

Álvarez Rabo. Vitoria: Ezten Kultur Taldea, 2001

TMEO-n argitaratutako orrialdeen bilduma. Egilearen iruzkina: "Zalantzarik gabe, Álvarez Rabok orain arte egin duen lanik 'errotikoena'. Hori irakurtzeak Euskal Arazoa eta inguruko beste arazotxoak ulertzeko balio du".

Recopilación de páginas publicadas en *TMEO*. En palabras del autor: "sin lugar a dudas la obra más 'radical' de Álvarez Rabo hasta la fecha. Leerla sirve para entender el Problemón Vasco y todos los problemillas de alrededor".

SABOR A RABO

Álvarez Rabo. Madrid: La Factoría de Ideas, 2001

Autorearen istorio mutuen bilduma. Hona hemen haren iruzkina: "Album honekin paroxismorik erabatekoenera iristen da bat kontzeptualki".

Recopilación de historietas mudas del autor, que comenta: "con este álbum se llega conceptualmente al más absoluto paroxismo".

· IHA NACIDO UN AGUJERO NEGRO!

Álvarez Rabo, Madrid: La Factoría de Ideas, 2001

Álvarez Raboren lehen istorioen bilduma. Hona hemen haren iruzkina: "Album ezin ezinbestekoagoa, jakiteko ezen artista handi bat ez dela 'egun batetik bestera' sortzen, baizik eta apurtxo bat heldu beharra izaten duela, sagarrak bezala. Egileak egin zuen lehen komikia ere badu, bai eta haren bilakaera artistikoaren azterketa analitikoa eta kontzeptuala ere, bi neska bekadunek egina".

Recopilación de las primeras historietas de Álvarez Rabo y en sus palabras: "álbum imperiosamente necesario para saber que un gran artista no sale 'de la noche a la mañana' sino que necesita madurar un poquitín como las manzanas. Incluye el primer cómic que hizo el autor y un estudio analítico de su evolución artística, estilística y conceptual a cargo de dos becarias".

HOMBRES ALTERADOS

Álvarez Rabo. Barcelona: La Cúpula, 2001

Egileak 1999 eta 2001 artean *El Vibora*n argitaraturiko orrialdeen bilduma. Azala (eta albumaren titulua bera) Maitenaren *Mujeres Alteradas*en azal baten parodia da.

Recopilación de páginas del autor publicadas en *El Víbora* entre 1999 y 2001. La cubierta (y el propio título del álbum) es una parodia de una portada de *Mujeres Alteradas* de Maitena.

• EL PRINCI-PITO

Álvarez Rabo. Madrid: La Factoría de Ideas, 2002

Álvarez Raboren lehen istorio luzea, eta koloretan gainera; denboraren marka hautsi zuen, sei egunean eginez. Istorioak Filiporen odisea kontatzen du. Printze bat da bera, eta Nerea izeneko neskame errepublikazale eta ateo batez maitemintzen da txoro-txoro. Gurasoen aginduak ez betetzeagatik, odisea bati ekingo diote biek; Álvarez Raboren kutsu "berezia" duen odisea bati, noski.

Primera historieta larga, y además a color, de Álvarez Rabo, que está hecha en un tiempo récord de seis días. La historia narra la odisea de Filipo, un príncipe que se enamora locamente de Nerea, una asistenta republicana y atea. Por desobedecer ambos las órdenes de sus respectivos padres, tienen que lanzarse a una odisea que tendrá el toque "particular" de Álvarez Rabo.

• CONSEJOS SEXUALES DE ÁLVAREZ RABO, SEGUNDA PARTE

Álvarez Rabo. Vitoria: Ezten Kultur Taldea, 2002

Egile bitxi honen sexu-aholkuen bigarren emanaldia.


Segunda entrega de consejos sexuales de este peculiar autor.













• LA METAMORFOSIS DE ÁLVAREZ RABO

Álvarez Rabo, Onil: Edicions De Ponent, 2003

Familiaburu baten kontakizuna. Saltoki handi batzuetako saltzaile apala da bera, bizimodu desatsegin horrek zanpatuta dauka, eta ametsetara jo besterik ezin du egin sexualitatea guztiz galduko ez badu; harik eta, egun batez, esnatzean, metamorfosia jasan duela konturatzen den arte. Orain labezomorro erraldoi bat da. Nola bideratu bizitza? Egia esan, hainbeste ere ez zaio aldatu...

Es la historia de un cabeza de familia, humilde dependiente de Grandes Almacenes, agobiado por una vida que le disgusta, con apenas el recurso de los sueños para no perder por completo su sexualidad, hasta que un buen día al despertar descubre que ha sufrido una metamorfosis. Ahora es una cucaracha gigante. ¿Cómo puede enfocar a partir de ahora su vida?, aunque tampoco ha cambiado tanto...

• FOLLAR NO ES OBLIGATORIO

Álvarez Rabo. Vitoria: Ezten Kultur Taldea, 2004

Álvarez Raboren beste "sexu-saiakera" bat, A las mujeres no les gusta follar eta Anal-fabetoseko ildo beretik.

Un nuevo "ensayo sexual" de Álvarez Rabo, en la misma línea y formato que *A las mujeres no les gusta follar y Anal-fabetos*.

ÚLTIMAS CHUPADAS

Álvarez Rabo. Barcelona: La Cúpula, 2004

Berriz ere, Álvarez Raboren lan hau pizgarri gertatzen da gizartearentzat.

Una vez más, esta obra de Álvarez Rabo supone un revulsivo para la sociedad.

· LOS "BAJOS" DE LA "ALTA" COCINA

Álvarez Rabo; [con prólogo del Ferran Adrià]. Donostia-San Sebastián: Gourmandia, 2008

Egileak bere blogean dioenez: "Lehen aldiz bere 'karreran', bere hiru gai klasikoak ez ukitzea erabaki du egileak (eta ez enkargua egin diotenek derrigortuta): sexua, politika, erlijioa. Are gehiago, kiribila kiribiltzeko, titi-ume gaizki hitz eginen esamolde itsusiak ez erabiltzea aukeratu du, hori ezaugarri nabarmena izan badu ere bere ibilbide tristean".

Tal y como el propio autor comenta en su blog: "Por primera vez en su 'carrera' el autor decide (no es una imposición de quienes le hacen el encargo) no tocar sus tres temas clásicos: sexo, política, religión. Es más, para rizar todavía más el rizo, también opta por no utilizar expresiones malsonantes de niño de teta muy mal hablado, algo característico en su triste trayectoria".





Álvaro Ortega-k *Habeko Mik* aldizkarian jardun zuen. Bertan argitaratu zuen lehen bi albumen euskarazko bertsioa. Zenbait istorio labur ere argitaratu ditu *La Comictiva*, *Bitniks*, *El Pequeño País*, *Tótem*, *Playboy*, *El Mundo*, *TMEO* eta beste zenbaitetan. Orobat, *Los felices 85* (Gasteizko Udala, 1985), *15 a la vez* (Arabako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1986) eta *Embero*, *Revista de la imagen* (CINT/Gasteizko Udala, 1990) talde-lanetan ere. Gaur egun, *TMEO*n argitaratzen du, eta 2005eko otsailetik, berriz, eguneroko tira bat *Qué* egunkari doakoan. Gainera, ilustrazioan eta publizitatean lan egiten du. Besteak beste, honako hauek argitaratu ditu: *Los arquitectos* (Ikusager, 1990; edizio frantsesa: Soleil, 1990), *El anillo* (Ikusager, 1991), *Revillos* (El País, 1993), *Magenta* (Bitniks, 1996).

Álvaro Ortega colaboró en la revista *Habeko Mik*, donde publicó la versión en euskera de sus dos primeros álbumes y varias historietas cortas, en *La Comictiva, Bitniks, El Pequeño País, Tótem, Playboy, El Mundo, TMEO* y otras publicaciones. También en las obras colectivas *Los felices 85* (Ayuntamiento de Vitoria, 1985), *15 a la vez* (Caja Provincial de Álava, 1986) y *Embero, Revista de la imagen* (CINT/Ayuntamiento de Vitoria, 1990). En la actualidad sigue haciéndolo en *TMEO* y publica también, desde febrero de 2005, una tira diaria en el periódico de distribución gratuita *Qué*. Además trabaja en ilustración y publicidad. Publicó *Los arquitectos* (Ikusager, 1990; edición francesa para Soleil, 1990), *El anillo* (Ikusager, 1991), *Revillos* (El País, 1993), *Magenta* (Bitniks, 1996).

· ZME PUEDE REPETIR LA PREGUNTA?

Alvarortega. Vitoria: Ezten Kultur Taldea, 2005

Bilduma-liburua. Albuma 1995. urtetik aurrera zenbait estilotan zehar egindako ibilbidea da, eta istorio garratz zenbait biltzen ditu, ikuspuntuaren gaurkotasuna beste elementu komunik gabe. Hala, bada, orrialde bikoitz bakoitzak ez du zerikusirik besteekin. Lan horretan erruz partitzen du egurra, eta ez inor ez ezer uzten du tente. Pertsonaia eta egoerei parodiaren ikuspuntutik ekiten zaie, zertarako eta inguratzen gaituen errealitatea auzitan jartzeko.

Volumen recopilatorio. El álbum es un recorrido, desde el año 95, por varios estilos y consta de una retahíla de historietas ácidas, con la actualidad en el punto de mira, sin elementos en común, por lo que cada doble página funciona independientemente. Una obra que reparte estopa y no deja títere con cabeza. Personajes y situaciones son revisados desde la parodia, con el objetivo de cuestionar la realidad que nos rodea.



Vitoria-Gasteiz, 1963





Arte Ederrak ikasi zituen eta arte garaikidearen eremutik (90eko urteen amaiera aldera, arte-lanen taldekako erakusketetan parte hartu zuen, hala nola *Situaciones*, *Usted está aquí*, bai eta *Arte y electricidad* eta beste lantegi batzuetan ere) eta teknologia berrien eta informazioaren mundutik iritsi da komikira. 2004. urtetik aurrera, komikian jardutea erabaki zuen, eta *ETECÉ*, *El Balanzín* eta *Humo*





eta beste aldizkari batzuetan argitaratzen hasi zen. *Mal dadas* du lehen komiki-albuma.

Estudió Bellas Artes y proviene del mundo del arte contemporáneo (a finales de los 90 participó en muestras colectivas de arte como *Situaciones, Usted está aquí*, y en talleres como *Arte y electricidad...*) y del mundo de las nuevas tecnologías de la información. A partir de 2004 decidió dedicarse a la historieta y comenzó a colaborar habitualmente para revistas como *ETECÉ*, *El Balanzín* y *Humo*. *Mal dadas* es su primer álbum de cómic.

· MAL DADAS

Leandro Alzate. Bilbao: Astiberri, 2008

Nerabe batzuk pistolazko duelu baterako bildu dira, baina Jessicak, duelugileetako batek, ez aurkeztea eta auzotik ihes egitea erabakitzen du. Besteek ez dute amore ematen, ordea, eta Jessicaren bila hasten dira, azkenean duelugileak aurrez aurre gerta daitezen lortzeko. Hortik aurrera, istilu eta gorabeherak bata bestearen atzetik etorriko dira; denek ere, aurrerako ihes etengabe gisa eratzen dute kontakizunaren nondik norakoa.

Un grupo de adolescentes se da cita para asistir a un duelo con pistolas, pero Jessica, una de las dos duelistas, decide no presentarse y escapar del barrio. Los demás se niegan a dar por zanjado el enfrentamiento, y buscarán a Jessica para conseguir que la confrontación se produzca finalmente. Este es el primero de una serie de desencuentros y alianzas efímeras que van marcando el rumbo de una historia en forma de continua huida hacia delante.





Arte Ederretan lizentziatua da, eta pinturako zenbait talde-erakusketatan parte hartu du; publizitatean lan egin du; eta liburuak ilustratu ditu Bruño, Barcanova eta beste argitaletxe batzuentzat, bai eta Astiberrirentzat ere, non *Mitologika* saileko liburuetan egindako lanean nabarmendu baita. Komikiari dagokionez, bere arrastoa utzi du *RIP, Lobotonia* eta tokiko beste fanzine batzuetan, bai eta *Xabiroi, Tos, Humo, BD Banda, Dos Veces Breve, El Balanzin* eta beste argitalpen batzuetan ere. Ia bi urte behar izan zituen *La cruz del sur* fantasiazko albuma amaitzeko, Luis Duranen gidoia zuen lana. *De ellas* (2005) talde-lanean egindako albumean parte hartu du.

